

ondorioz horren zenbatekoan egin daitezkeen zuzenketen kaltetan izan gabe. Edonolaz ere, txartel berriei atxekitzeak osagarri hori gutxitzea ekarriko du, horiengatik gainontzeko ordainketa-azalpenak gehitzen diren zenbatekoan.

**Bosgarrena.**— 3.2.b) atalean xedatutakoaren kaltetan izan gabe, Dekretu hau indarrean jartzen denean estatutupeko langile tinko izaera izan dezaten langileei onartutako hirurtekoen zenbatekoak aurretik indarrean zeuden hainbatekotan geratuko dira.

#### AZKEN XEDAPENAK

**Lehenengoa.**— Ohartemandako ordainketa sistema zertu bitarteko aldiak ezartzeko agintea ematen zaio Osasun eta Kontsumo Sailburuari, Osasun-Txartel Indibiduala jartzeak eragiten dituen ordainketak gauzatzeari dagokionean.

**Bigarrena.**— Osasun eta Kontsumo Sailak Dekretu hau garatu eta ezartzeko beharrezko gerta daitezen arauak erabakiko ditu, Euskal Autonomi Elkarteko beste zenbait Organuri dagozkien eskuduntzen kaltetan izan gabe.

**Hirugarrena.**— Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin egunean bertan jarriko da indarrean.

Gasteiz, 1989eko irailak 19.

Lehendakaria,  
**JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.**

Lehendakaritza, Zuzentza  
eta Autonomi Garapenerako Sailburua,  
**JUAN RAMON GUEVARA SALETA.**

Osasun eta Kontsumo Sailburua,  
**JOSE MANUEL FREIRE CAMPO.**

de las correcciones en su cuantía que se deriven, por hallarse así establecido, de la aplicación de futuras actualizaciones retributivas. En cualquier caso, la adscripción de nuevas tarjetas supondrá la reducción de tal complemento, en el importe que por las mismas se incremente al resto de los conceptos retributivos.

**Quinta.**— Sin perjuicio de lo dispuesto en el art. 3.2.b) el importe de los trienios reconocidos al personal que a la entrada en vigor de este Decreto tenga la condición de personal estatutario fijo, se mantendrán en las cuantías vigentes con anterioridad.

#### DISPOSICIONES FINALES

**Primera.**— Se faculta al Consejero de Sanidad y Consumo para establecer los períodos transitorios de aplicación del sistema retributivo previsto en lo referente a la aplicación de las retribuciones afectadas por la implantación de la Tarjeta Individual Sanitaria.

**Segunda.**— Por el Departamento de Sanidad y Consumo se dictarán cuantas normas sean precisas para el desarrollo y aplicación del presente Decreto, sin perjuicio de las competencias que correspondan a otros Órganos de la Administración de la Comunidad Autónoma.

**Tercera.**— El presente Decreto entrará en vigor el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Vitoria-Gasteiz, a 19 de Septiembre de 1989.

El Lehendakari,  
**JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.**

El Consejero de Presidencia, Justicia  
y Desarrollo Autonómico,  
**JUAN RAMON GUEVARA SALETA.**

El Consejero de Sanidad y Consumo,  
**JOSE MANUEL FREIRE CAMPO.**

#### HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA ETA HIRIGINTZA, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO SAILA

2648

202/1989 DEKRETUA, irailaren 19koa, Euskal Autonomi Elkarteko «Ingurugiroarekiko Irakasbideen Hezkuntza eta Ikerketarako Ikastegi»-en sortze eta ihardutze-modua araupetzen dituena.

Ingurugiroarekiko hezkuntzaren aldeko politika gauzatu eta suztatzea da Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro-Sailak duen helburuetariko bat, horren bidez, herritarrengan ingurugiroarekiko kontzientzia-zioa eta sensibilizazioa lortzeko.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, halaber, bidezko eritzi dio ingurugiroarekin zerikusia duten ekintzak eskola-esparruan sartzeari, eskolako hezkuntza alor horretan sendotzeko.

#### DEPARTAMENTOS DE EDUCACION, UNIVERSIDADES E INVESTIGACION Y URBANISMO, VIVIENDA Y MEDIO AMBIENTE

2648

DECRETO 202/1989 de 19 de Septiembre, por el que se regula la creación y el funcionamiento de los Centros de Educación e Investigación Didáctico Ambiental de la Comunidad Autonómica del País Vasco.

Constituye uno de los objetivos del Departamento de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente, la elaboración y el fomento de una política de educación ambiental, a través de la cual se logre la concienciación y sensibilización ciudadana en esta materia.

Asimismo, el Departamento de Educación Universidades e Investigación considera conveniente la inclusión en el ámbito escolar de actividades relacionadas con el medio ambiente, a los efectos de potenciar la formación escolar en dicha área.

Izan ere, Sail horien elkar lanaz, ingurugiro-heziketaren alorrean Euskal Autonomi Elkarteko hezkuntza-sistemarentzat zenbait laguntza-ikastegiren sortu beharra ageri da, ikaslegoa ingurugiro alorrean sensibilizatu eta prestatzeko bide eman dezaten ikastegiak hain zuzen.

Horiek horrela, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa-Sailburuaren eta Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro-Sailburuaren saloz, eta Jaurtze-Batzordeak 1989.eko irailaren 19an egindako bilkuran aztertu ondoren, honako hau

#### XEDATU DUT:

*Lehenengo atala.* — Euskal Autonomi Elkarteko irakaslegoa ingurugiroaren alorrean prestatzeko tresna eratzen dira Ingurugiroarekiko Irakasbideen Hezkuntza eta Ikerketarako Ikastegiak.

*Bigarren atala.* — Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro-Sailaren Aginduz sortaraziko dira Ingurugiroarekiko Irakasbideen Hezkuntza eta Ikerketarako Ikastegiak, eta bertan, izena, tokia, agiango berarizko egin-kizunak eta dagokion plantilla adierazi behar izango dira; hori, guzti hori, Hezkuntza Unibertsitate eta Ikerketarekin bat etorri egin behar izango da.

*Hirugarren atala.* — 1. — Ingurugiroarekiko Irakasbideen Hezkuntza eta Ikerketarako Ikastegiak, ihardutze-egituraz, Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailaren menpe egongo da; hala ere, bere egituraketa eta ekinbideak aztertu eta zehazte-lana Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa-Sailak eta Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak egingo dute, elkar lanean.

2. — Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailari dagokio Ingurugiroarekiko Irakasbideen Hezkuntza eta Ikerketarako Ikastegien ekintzak zuzendu, ikusku eta elkarketetza, eta horretarako langileak eta gauzazko baliabideak Sailak berak jarriko ditu.

*Laugarren atala.* — Ingurugiroarekiko Irakasbideen Hezkuntza eta Ikerketarako Ikastegiek honako hauek hartuko dituzte beren gain:

a) Eskola-egitarauketa osatzeko ekintzapideak suztatu eta bultzatzea, ikasleak ingurugiroaren benetako egoerara hurbiltzeko xedez.

b) Ingurugiroarekiko Hezkuntzaz bere osotasunean aritzeko bide ematea eskolako irakaskuntza-egitarauetako alor ezberdinetan.

c) Irakasleei zuzenduta eta Eskolaren iharduna gauzatzerakoan inguruarekiko hezkuntza sartzeko bide eman dezaten hobekuntza-egitarauak prestatu eta ihardunean jartzeko elkar lana egitea Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin.

d) Ikastegien ekinbide eta baliabideen antolakide-keta bultzatzea, ingurugiro alorrean antolakidetutako eta barne-egokitasunezko eskaintza bat egiteko xedez.

e) Hezkuntza-elkartearen saila guztiak ingurugiroarekiko hezkuntzaren helburuak lortzeko eskuhartu beharraz sensibilizatza.

f) Ikastegien esparruan igurugiroarekiko gaiez ari-

En este sentido, se ha puesto de manifiesto la necesidad de crear, en colaboración entre ambos Departamentos, unos centros de apoyo al sistema educativo de la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de formación ambiental, que favorezcan la sensibilización y formación de la población escolar en materia de medio ambiente.

En su virtud, a propuesta de los Consejeros de Educación, Universidades e Investigación, y de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente, y previa deliberación del Consejo de Gobierno en su sesión de 19 de septiembre de 1989,

#### DISPONGO:

*Artículo primero.* — Los Centros de Educación e Investigación Didáctico-Ambiental, se configuran como instrumentos destinados al servicio de la formación ambiental del profesorado de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

*Artículo segundo.* — La creación de los respectivos Centros de Educación e Investigación Didáctico-Ambiental se realizará mediante Orden del Departamento de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente, en la que se hará constar su denominación, ubicación, posibles funciones específicas y correspondiente dotación de plantilla, previo acuerdo con el Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

*Artículo tercero.* 1. — Los Centros de Educación e Investigación Didáctico-Ambiental, dependerán orgánicamente del Departamento de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente, si bien su programación y líneas de actuación se analizarán y determinarán de manera conjunta entre el Departamento de Educación, Universidades e Investigación y el de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente.

2. — La dirección, supervisión y coordinación de actuaciones de los Centros de Educación e Investigación Didáctico-Ambiental se realizará por parte del Departamento de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente, que habilitará los medios personales y materiales necesarios para ello.

*Artículo cuarto.* — Los Centros de Educación e Investigación Didáctico-Ambiental asumirán las siguientes funciones:

a) Fomentar e impulsar actividades de apoyo a la programación escolar con el objetivo de acercar ésta a la realidad medioambiental.

b) Propiciar el tratamiento interdisciplinar de la Educación Ambiental en las diversas áreas de los programas de enseñanza escolar.

c) Colaborar con el Departamento de Educación, Universidades e Investigación en el diseño y puesta en marcha de programas de perfeccionamiento del profesorado que faciliten la incorporación de la educación ambiental en el desarrollo de la actividad escolar.

d) Potenciar la coordinación de las iniciativas y recursos de los centros educativos con el objeto de articular una oferta coordinada y coherente en materia medioambiental.

e) Sensibilizar a todos los estamentos de la comunidad educativa de la necesidad de su implicación en el logro de los objetivos de la educación ambiental.

f) Diseñar y elaborar el material adecuado para el

tzeko materiale egokia taiutu eta gauzatzea.

*Bosgarren atala.* — Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak jarriko ditu Ingurugiroarekiko Irakasbideen Hezkuntza eta Ikerketarako Ikastegietarako langileak eta irakasleen arteko nornahirentzako lehiaketa izango da horretarako bidea. Aukeratutako irakasleak zerbitzu manueldian egongo dira.

*Seigarren atala.* — Ingurugiroarekiko Irakasbideen Hezkuntza eta Ikerketarako Ikastegi bakoitzak bi irakasle izango ditu gutxienez, eta horietariko batek beteko du Ikastegiko zuzentza-eginkizuna.

*Zazpigarren atala.* — Eskolaurreko irakaskuntzako, oinarrizko hezkuntza orokorreko, irakaskuntza ertainetako eta helduen etengabeko hezkuntzako mailez arituko dira lehentasunez Ingurugiroarekiko Irakasbideen Hezkuntza eta Ikerketarako Ikastegiak.

#### AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.* — Baimena ematen zaie Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari eta Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailari, dagozkien agintepideez baliatzerakoan, Dekretu hau erabiltzeko eta garatzeko beharrezko izan daitezen xedapenak emateko.

*Bigarrena.* — Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin egunean bertan hartuko du indarra Dekretu honek.

Gasteiz, 1989eko irailak 19.

Lehendakaria,  
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Hezkuntza, Unibertsitate  
eta Ikerketa Sailburua,  
JOSE RAMON RECALDE DIEZ.

Hirigintza, Etxebizitza  
eta Ingurugiro Sailburua,  
JOSE MIGUEL MARTIN HERRERA.

tratamiento de la temática medioambiental en el entorno de los centros educativos.

*Artículo quinto.* — La aportación de personal a los Centros de Educación e Investigación Didáctico-Ambiental se realizará por parte del Departamento de Educación, Universidades e Investigación mediante concurso público de méritos entre el personal docente y en régimen de comisión de servicios.

*Artículo sexto.* — Cada Centro de Educación e Investigación Didáctico-Ambiental contará con una dotación mínima de dos profesores, uno de los cuales ejercerá la función directiva del Centro.

*Artículo séptimo.* — Los Centros de Educación e Investigación Didáctico-Ambiental preferentemente extenderán su acción a los niveles de enseñanza preescolar, educación general básica, enseñanzas medias y educación permanente de adultos.

#### DISPOSICIONES FINALES

*Primera.* — Se faculta al Departamento de Educación, Universidades e Investigación y al de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente para dictar, en el ejercicio de sus respectivas competencias, cuantas disposiciones resulten precisas para la aplicación y desarrollo del presente Decreto.

*Segunda.* — La presente disposición entrará en vigor el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 19 de septiembre de 1989.

El Lehendakari,  
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Educación,  
Universidades e Investigación,  
JOSE RAMON RECALDE DIEZ.

El Consejero de Urbanismo, Vivienda  
y Medio Ambiente,  
JOSE MIGUEL MARTIN HERRERA.

## Agintariak eta Lanarigoa Autoridades y Personal

### Izendapenak, egoerak eta gora-beherak Nombramientos, situaciones e incidencias

#### HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

2649

AGINDUA, 1989eko urriaren 2koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarena, 1957eko urriaren 18ko Dekretuko 2. atalean zehazten diren egoeretako batetan aurkitu eta O.H.O.-ko irakasle direnentzako lanpostu-gordeketarako deialdia egiten duena.

Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko Irakasleentzako lanpostu-aldeketa deialdia laster egingo denez eta 1957eko urriaren 18ko Dekretuko (31ko Estatuko Buletin Ofiziala) 2. atalean ezartzen dena betez, honako hau

#### DEPARTAMENTO DE EDUCACION, UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

2649

ORDEN de 2 de Octubre de 1989, del Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco, por la que se convoca reserva de plaza para aquellos profesores de E.G.B. que se hallen en alguna de las situaciones previstas en el artículo 2.º del Decreto de 18 de Octubre de 1957.

Próximo a convocarse concurso de traslados entre Profesores de Educación General Básica, y a fin de dar cumplimiento a lo dispuesto en el artículo 2.º del Decreto 18 de Octubre de 1957 (Boletín Oficial del Estado del 31),